

ERRIMA BERTSOLARITZAN: ARAU ETA BALIABIDE

Pello ESNAL

Gogoan dut nola Eibarren, Herri Literaturako VII. jardunaldietan, aurrez aurre bazkaldu genuen Juan Mari Lekuonak eta biok. 2002ko azaroaren 28a zen. Juan Mariri astebate lehenago nabarmendu zitzaion gaitza, Markinan, jardunaldi horien aurkezpenean. Eta gogoan dut zer esan zidan bazkaritan, esaldia nekez osatuz: “segi errimarena lantzen; ea artikulu egokia ateratzen duzuen literatura-hiztegian”. Labur erantzun nion: “Bai, Juan Mari. Saiatuko gaituk”.

Juan Mari, nekez osatutako esaldi hartan, lekukoa ematen ari zitzaidala sumatu nuen: berak osabarengandik hartutako lekukoa eskaintzen. Osabak bezala, Juan Marik ere aztertua zuen bertsolarien errima; eta Juan Mari eta biok ere saiatuak ginen elkarrekin jorratzen. Aurrerantzean, bera gabe jarraitu beharko nuen. Eta aurrera egiteko esaten ari zitzaidan, nahiz eta ondo zekien ez gentozela bat zenbait kontutan.

Juan Marik ez zekien, ordea, lekuko bikoitza emaitzen ari zitzaidala.

Euskaltzaindiak, 1994an, XIII. biltzarra antolatu zuen, sortua izan zeneko 75. urtemuga ospatzeko. Hain zuzen, biltzar horretarako prestatu genuen, Herri Literatura batzordean, errimari buruzko lana. Juan Mariren beraren ideia izan zen, eta nire eskuetan gelditu zen bai txostena lantzea batzordearen baitan, bai biltzarrean jendaurrean aurkeztea. “Puntua bertsolaritza” izenburuz argitara zen *Euskera* aldizkarian (Esnal, 1994b). Orain, hura egokitze aukera izango genuen literatura-hiztegian.

Gaur, plazan da *Literatura Terminoen Hiztegia* (Otaegi, 2008); eta hor dator euskal errima oro har lantzen duen artikulua; eta honen baitan, bertsolaritza erabiltzen den errimari buruzko azalpena, metrikaren aldetik egina.

Juan Marik emandako lekukoak bazuen, ordea, beste alderdi bat: errima, arau gisa ez baina, baliabide gisa hartzen duena. Izan ere, Juan Mariri zor diot bigarren alderdi hau lantzen hasi izana ere, nahiz eta ez dudan uste inoiz esan nionik. Eta Eibarko bazkari hartan beranduegi nenbilen. Dena den, alderdi hau ere lantzen jarraitzeko hitza eman nion, baietz erantzun nionean.

Besterik gabe, ondoren azaltzera noa zer ibilbide egin dudan errimaren bi alderdi horiek aztertuz, Juan Mari gogoan eta bihotzean, esker onez eta mirespenez.

1. LEHEN URRATSAK

Irun

Errimaz eta bertsolaritzaz hitz egitean, askotan ikusten dut neure burua Irunen, salletarren formazio-etxean, hamalau urte nituela. Orduan izan nuen, hasteko, Antonio Zavalaren egitasmo erraldoiaren berri. Orduan irakurri nuen, 1964ko Eguberritan, *Azpeitiko premiyoaren bertsoak*, Auspoako 25. zenbakia. Orduan hasi nintzen lehen bertsoak idazten ere. Eta ordukoak dira hitz hoskideen nire lehen bi zerrendak: *indarra, zakarra, baldarra...*; *gezurra, beldurra, agurra...* Baina azkar etsi nuen.

Ordurako banuen gaztelaniazko metrikaren berri: nola gaztelaniaz errima asonantea eta kontsonantea bereizten diren; nola azentutik aurrera hasten den errima; beraz, nola esdrujula, grabea edo agudua izan daitekeen errima daraman hitza. Berehala ohartu nintzen, ordea, bertsoen errimak ez zituela erdal metrika haren arauak betetzen. Nire lehen zerrenda haietako hitzei grabeen itxura hartzen nien. Non ote ziren aguduak eta esdrujulak? Norbaitek esan zidan euskaraz ez dagoela horrelako azenturik, eta han amaitu ziren nire zerrendak. Orduan, nola idatzi bertsoak, euskal metrika ezagutu gabe?

Azken batean, bertso-girotik kanpo bizi zen gaztetxo baten nahia eta ezina adierazten zuten lehen urrats horiek. Hala ere, gaztetxo hark bertsoak jartzen zituen tarteka. Agian, bertsoak jarritz joango zen pixkana bertsogintzako metrika ikasten eta menderatzen.

Andoain

Sei-zazpi urte geroago Andoainean nintzen, berriz ere jaioterrian, eba-kuntza gogaikarri bat zela medio. Eta bertsoak idazteari ekin nion. On egingo

zidan gauzak umorez hartzeak. Bat-batean ere hasi nintzen neure gisa. Trakets hasieran; nola edo hala berehala, bai idatziz, bai bat-batean, baina errima menderatu ezinik eta baliabide errazegiak baliatuz: *-tzen* amaierak-eta.

Etxeko egonaldi hartan jakin nuen nola Juan Mari Lekuona izan berria zen Andoainen bertsolaritzaz hitzaldi bat ematen eta nola esan zuen bertsolariek “klitxeak” baliatzen dituztela bertsotan. Ez dakit zehatz-mehatz zer esango zuen, baina betiko iltzatuta gelditu zitzaidan “klitxe” hura, neure erara ulertuta: antzeko errimak erabiltzen dituztela bertsolariek, molde jakin batzuk baliatuz behin eta berriro.

Elgoibar

Bi urte geroago, 1973ko urtarrilaren 28an, Elgoibarren nintzen, Euskaltzaindiaren D titulua jasotzen, Pedro Migel Urruzunori eskainitako omenaldian. Orduan, Zarautzen bizi nintzen, bertso-giroan murgilduago, Auspoko liburuak gogotik irakurtzen. Klitxe batzuk ere atzematen hasia nintzen, Txirritaren bertsoak irakurriz eta bat-bateko bertso-saioretan: *batean, artean, bitartean...; jabe, gabe, hobe...; ikusi, itsusi, nagusi...* Bertsoak ere jartzen nituen noizean behin.

Elgoibarren, Antonio Zavalala izan zen hizlari. Lehen aldiz entzuten niola. Bi urte lehenago Juan Mariren “klitxe” hura bezala, orain Antonioren pasarte bat gelditu zitzaidan betiko iltzatua gogoan (Zavalala, 1996: 309):

Bertsolari ez diranak, diranak baño askoz lasaiagoak dira puntuetan. Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik kontuan artzea aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeke. Urruzuno oso xuxena ta aberatsa zan puntuetan. Aren liburu bat artu ta bertso bat billatu det: edozein. Ona emen puntuak: ardatza, aberatsa, latza, esperantza. Beste bertso batenak: gutxian, etxian, kotxian, biotzian. Alakoxeak dira beti Urruzunoren puntuak; bertsolaririk onenak erabiltzen dituzten modukoak.

Hala hasi nintzen atzematen, pixkana, bertsolaritzaren errimaren bi alderdiak: metrikarena eta errima-moldeena.

2. ERRIMAREN BI ALDERDIAK ATZEMATEN ETA LANTZEN

Hurrengo hamar urteetan, buru-belarri ibili nintzen bertsoen munduan. Zenbat bertso-saio, jaialdi eta sariketa! Ia sariketa guztietara joaten nintzen

entzule. Noizbait, 1979an, Euskaltzaindiak berriro antolatu zuen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Hiru saioetan izan nintzen: Arrasaten, Gernikan eta Donostian, finalean.

Idolo handi bat izan nuen lehenbizi: Manuel Lasarte; eta Lasarterekin batera, Xalbador. Gero, 1979ko txapelketan, zoratu ninduen Xabier Amurizaren bertsogintzak.

Xalbador

Odolaren mintzoa liluragarriak, bertsoa ez ezik, aberatsa du hitzaurrea ere, bai formaz eta bai edukiaz. Besteak beste, hitz jakingarriak idatzi zituen errimaz Xalbadorrek. Hiru puntu azpimarragarri hartu nizkion betiko gogoa (Xalbador, 1976: 57-60): 1) zeinen nekeza zitzaion berari errimara makurtzea, Hegoaldeko zenbait bertsolariri ez bezala, 2) zer poza sumatzen zuen zenbait entzuletan, bertsolariren bat errimaren arauetatik ateratzen zenean, 3) baina, zailtasunak zailtasun, ez zela errazkerian jausten; aurretik zegoela bertsoarekiko eta hizkuntzarekiko errespetua:

Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzeegi izaitegatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia,
maitatzen baitut bizia.

Xalbadorrek erdi bideko errima erabili zuen bertsotan: ez Hegoaldekoek bezain estua, baina ezta Iparraldeko zenbat kantutakoa bezain lasaia ere; eta beti, hizkuntzaren arauak zintzo betez.

Xenpelar saria

Bitartean, neure bidea egiten ari nintzen bertsogintzan, batez ere idatzietan. Bertsoak idatzi eta *Zeruko Argia* aldizkarira bidaltzen hasi nintzen. Eta, 1978an, Xenpelar saria irabazi nuen, “Soldadu ekarri naute” bertso jarriekin (EsnaI, 1995: 23-24). Euskaltzaindiak antolatu eta lehendik Xalbador zenak lautan irabazitako saria!

Uztapideren lezioa

Aiako herriak omenaldi bat eskaini zion Manuel Lasarteri, 1979ko martxoaren 18an. Aian bizi bainintzen orduan, zazpi bertso idatzi nituen eta *Zeruko Argian* plazaratu. Honela dio laugarrenak (Esna, 1995: 34):

Aiarren bihotzetan
zuk ere, Lasarte,
oroitarri bat duzu
bizi garen arte,
hain zara miresgarri,
hain zaitugu maite,
maitemindu gazteak
laguna hainbeste.

Omenaldiaren egunean, jendez gainezka zegoen Aia. Bazkalondoan izan zen bertso-jaialdia; eta, jaialdiaren aurretik, Basarrik kantatu zituen Uztapidek Lasarteri jarritako sei bertsoak. Hauxe da lehena (Uztapide, 2001: 231):

Zu jaio ziñanetik
gaurdaino bitarte
badira berrogei ta
amaika bat urte;
bertsotan naiz ez izan
zuk ainbeste arte,
omenaldi onetan
artu nai nun parte,
zorionak biotzez,
Manuel Lasarte.

Bertso horrek betiko markatu ninduen. Izan ere, alderatu besterik ez daude nire aurreko bertsoaren bi azken oinak –*maite* eta *hainbeste*– eta Uztapiderenak, bostak –*rte* errimadunak. Alde hori zegoen nire errimaren (baita Xalbadorren errimaren) eta Uztapideren (eta ildo bereko bertsolarien) errimaren artean. Aurrerantzean, Uztapide eta eskola berekoen ildotik joko nuen.

Juan Mari Lekuona: “Ilargiaren eskolan”

Urte hartantxe plazaratu zen *Ilargiaren eskolan*, Juan Mari Lekuonaren bigarren poema-liburua (Lekuona, 1979), bigarren zatia –“Liburuen karroxa”– bertsoz osatua. Bertso horien errimak bi ezaugarri nagusi zituen: Uztapideren eskolakoa zen eta bertsolariek inoiz erabili gabeko oinek gauzatzeko zuten. Lehen ezaugarria dela-eta, Zavalak sei urte lehenago Elgoibarren

esanaz gogoratu nintzen: “Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik kontuan artzea aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeko”. Dударik gabe, Juan Mariren oinak bertsolari batenak dira. Bigarren ezaugarriak, berriz, baieztapen hori zehaztera garamatza: bertsolari kultu baten bertsoak dira Lekuonarenak.

Bi eratan uler daiteke hori. Edo Juan Mari urrundu egiten dela bertsolaritza, esparru horri itxiegia iritzita. Edo kontrakoa: ahaleginak egiten ari dela bertsolaritza hurbil-hurbiletik ezagutu eta jarraitzeko, betiere bideak zabalduz eta aberastuz. Bigarren irakurketa aukeratu nuen. Are gehiago: lau haizetara zabaldu beharra zegoen. Izan ere, zenbat euskal poetak lortu du bertsolaritzaaren errima ezagutu eta bereganatzea?

Bestalde, bada poema-liburu horretan pasarte esanguratsu bat, Luis Mari Mujikak hitzaurrean idatzia, maila guztiz apalagokotzat joz liburuaren bigarren parte (Mujika, 1979: 13-14). Lehendik ezaguna genuen Mujikak bertsolaritza buruz zuen iritzia.

Xabier Amuriza

Urte berean izan zen Bertsolari Txapelketa Nagusia, Amuzirak 1980ko Errege egunez irabazi zuena. Aldi berri bat hasten da bertsolaritza. *Zeruko Argiara*, bertsoak ez baina, artikulu bat bidali nuen, “Txapelketa historiko bat”, berritasun hori azpimarratuz (Esnal, 1980).

Erriman ere nabaria zen Amurizaren berrikuntza.

Xabierrek euskara batua zerabilen bertsoetan eta, ondorioz, erriman. Horrek aldaketa zekarren berekin. Eta zailtasuna. Zailtasuna, oinen forma berriak ez ezik, ordu arteko klitxeen eraberritzea ere bazekarrelako. Hala, maiz darabilte Hegoaldeko bertsolariak *genduan* forma errimetan; eta horrekin *moduan*, *munduan*... Baina *genuen* batuak beste oin batzuk eskatzen ditu alboan; beste klitxe batzuk.

Gainera, Amurizaren beste bi erabakik areagotzen zuten zailtasuna. Batetik, nahiz Xalbadorren miresle handia izan, Hegoaldekoen errima estua hobetsi zuen eta, bestetik, bere buruari ez zion uzten lizentziarik hartzen. Berak esana da: lizentzia bakarra hartu zuela 1979ko txapelketa osoan; oker ez banago, *usua* (usoa) eta *osua* (osoa) erabili izana, *lehengusua* oinaren errimakide.

Baina Amurizak zabaldu ere egin zuen errima, hoskidetza berreskuratuz. Hau ez zegoen galdua. Baina, errima gero eta beteagoa nahita, giroan zegoen berdintasun idatzia hobesteko joera, hoskidetzaren kaltetan. Amurizak,

ordea, ahalik etekinik handiena ateratzen dio hoskidetzari. Tradizioa berreskuratzen ari zen.

Amurizak, gainera, ugaldu ere egin zuen errima-hiztegia; eta errima-hiztegiarekin batera, klitxeak.

Hori guztia berria zen, nobedade, Amuriza bertsotan lehenengoz entzuten genuenontzat. Plazan zegoen, ordea, urte batzuk lehenagotik, bere *Mundutik mundura* liburuiko bertso jarrietan (Amuriza, 1977). Argiago eta zehatzago ikusiko zen 1981ean, liburu bikoitza plazaratu zuenean: *Hitzaren kirol nazionala* eta *Hiztegi errimatua* (Amuriza, 1981a; 1981b).

Amurizak plazaratu zuen errima berria. Baina, funtsean, Juan Mari Lekuonak “Liburuen karroxa” zatian darabilen berbera da. Azken batean, biek egiten dute gauza bera: bertsolaritzaren tradizio nagusian oinarritu eta euskara batuaren ekarriaz osatu, ugaldu eta aberastu.

Manuel Lekuona: 1915-1925

Ur asko mugitu zuen txapelketak. Besteak beste, mintzaldi batzuk antolatatu zituen bertsolaritzaz Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak. Lau saioetan izan nintzen. Baina batez ere Manuel Lekuonarena egin zitzaidan deigarri. Eztabaida zahar baten oihartzuna zekarren.

Gero, mintzaldi horiez osatu zuten *Jakin* aldizkarikoek 14-15 zenbaki bikoitza, beste lan batzuk ere baliatuz. Hona hemen, on Manuelen hitzak eta eztabaida zaharraren oihartzuna (Lekuona, 1980: 60-61):

Nik ba det, orain irurogeitamar urte baño geiago egindako itzaldi bat gai onetaz: Gasteiz’ko Seminarioan, Ikastaldi baten Asieran irakurritako Itzaldia. “De Métrica Vasca” zuan izena. Gogoan det, zergatik aukeratu nuan gai ori nere Itzaldi artarako.

Urte aietan –1915-1925– D. Antonio Pildain Lezoarra eta D. Jose Migel Barandiaran ataundarra eta irurok, alkarrekin egiten genituan gure arratsaldeko paseotxoak Gasteiz-inguru aietan. [...] Eta aietako batean, gogoan det, D. Antonio Pildain’ek, Bertsolarietaz ari giñala, nola esan zuan bapatean –berak askotan oi zuan bezela bapatean–:

–Manolo: nik uste, euskal-bertsorentzat Metrika berri bat sortu bear litzakela; gaurko Metrika, gauza errexegia dek, gauza merkea; Euskera, Izkuntza sufijativa izanik, euskeraz bertsoa egitea gauza errezegia dek, gauza merkea; zallagoko, arte geiagoko beste Metrika bat sortu bear zenduteke. [...]

Nere metrikaren asiera, gure Gasteiz-inguruko paseoetan izan zan; Pildain adiskidearen kritikan; kritika besobakarra, bañan neretzat azterketarako bidea eman zidana.

Manuel Lekuonaren mintzaldiak, errimaz ez ezik, erritmoaz ere badihardu. Oso kontuan hartzekoa da hori, baldin eta iloba Juan Mariren bertsoari buruzko teorizazioa ulertu nahi bada.

Joxe Azurmendi

Bada, ordea, *Jakin* bikoitz horretan esaldi zorrotz bat, Joxe Azurmendik idatzia. Ez zen hizlari izan mintzaldietan, baina lan luze bat egin zuen aldizkarirako. Tartean dio (Azurmendi, 1980: 160):

Rima azterketa kuantitatibo sinpleenak ere egiteko gaude eta rimari buruz teorizatzen ibiltzen gara.

Neuretzat hartu nuen.

Juan Mari Lekuona: Lizardiren metrikaz

Txapelketa nagusi hark eraginda-edo, bertsolari gazteentzako Xenpelar sarian eman nuen izena, 1980aren amaieran, neure burua plazan eta bat-bateko bertso gintzan probatzeko. Ondo ikasi nuen lekzio hura ere.

Bi urte geroago plazaratzen du Juan Marik *Ahozko euskal literatura* oinarrikoa (Lekuona, 1982). Urtebete geroago etorriko da, *Jakin* aldizkarian, Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak aztertuz egindako lana, niretzat bideurratzaile izan zena. Honen sarreran, bi pasarte jakingarri zetozen (Lekuona, 1983: 53-54). Lehenak Joxe Azurmendiren hitzak ekarri zizkidan gogora:

Hasi beharra dago hartzen ditugun arloak beren luze-zabalean aztertzen, ikuspegiak mugatzen eta kuantifikatzen, edota baieztapenen oinarriak eskaintzen, neurri egoki batean behintzat.

Bigarrena soka luzekoa da:

Guk hemen, eta besterik erakusten zaigun arte, desberdintzat hartzen ditugu [puntuak eta errima]: errimak batez ere letrekin du zerikusia, eta azken letraz/-ez egindako hoskidetza berdina emango luke aditzera, asko edo gutxi direla letra horiek; eta puntuak, letrekin ezezik, erritmoarekin ere badu zerikusi, adibidez, oinekoekin; eta letrei dagozkienetan, errimarena baino luzeagoko hoskidetza ere lekarkiguke, bai hoskidetza magikoa deritzana, bai aliterazioz ematen zaiguna, gero ikusiko dugunez.

Horra hor, bereizita, Juan Mariren teorizazioan, osaba Manueli jarraiki, funtsezkoak diren hiru kontzeptu: errima, puntua eta oina. Eztabaida gogorak izanak zituen horiez Patxi Altunarekin. Eta gerora ere tinko eutsiko dio

bere ikuspegiari, “besterik erakusten zaigun arte”. Eta *Literatura Terminoen Hiztegia*n utzia du azken testigantza; esaterako, oina kontzeptuaz eta terminoaz (Otaegi, 2008: 605-607).

Lizardiren errima aztertzeke, sei errima-eredu bereizi zituen (Lekuona, 1983: 54-55):

Sistema hau hartu dugu. Ez da erabatekoa, baina bai bide bat azterketak egiten hasteko [...]. Eta errimako hotsen hoskidetza nondik hasten den begiratzuz, kasu hauek aurki daitezke:

*A eredu*a: atzizki edota morfema berdinez egiten dena, bakoitzaren ñabardurak barne: izu-izuAN / arteAN; sortuRIKO / jantziRIKO; diranAK / oiAK; buruTU / aazTU.

*B eredu*a: lexema desberdinetako azken silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz egiten dena: bainO / banekielakO; jaurtI / bizI; oNENA / biguNENA; negUA / puztUA.

*C eredu*a: lexema desberdinetako azken silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: murkIL / IL; OIN / itxOIN; zorakortasuNA / igaNA; baduTE / ez oTE.

*D eredu*a: lexema desberdinetako azkenaurreko silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz: gERO / ERO; beñOLA / kaiOLA; AGO / pozAGO; baÑA / AÑA.

*E eredu*a: lexema desberdinetako azkenaurreko silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: ZEGOEN / ZEGiOEN; mALDAN / AL DAN; yausiTAKOAN / DAGOAN.

*F eredu*a: lexema desberdinen heren silabatik hasiz egiten dena: IzURI / IdURI; bESeRI / ESERI; zornA BERRIAK / ABERRIAK; ITZALI / kIXKALI.

Eta *Biotz-begietan olerkiak* obran Lizardik erabilitako errima guztiak banan-banan aztertutik, emaitza hau eskaini zigun (Lekuona, 1983: 87): A ereduko errimak: % 8,59; B eredukoak: % 30 inguru (zehaztu gabe) eta C eredukoak: % 36,18. Eta puntu hori amaitzen zuen esanez:

Lizardik lautatik bat bakarra lantzen du estilista zehatzek egingo luketen neurrian.

Poesiaren erdietan baino gehiago hoskidetza nabaria agertzen da Lizardiren estrofagintzan. Beraz, errimaz atzeragoko hoskidetzak badirudi osatu egiten duela bete-beteko errimen hutsunea, erizpide estetikoaren garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri.

Artikulu, berriz, honela bukatu da:

Honetan gelditzen da oraingoz gure ekarria. Hartu dugun eremuari buruzko datuak bildu ditugu, zenbatu, eta hauetatik atera daitezkeen ondorio

zehatzak atera. [...] eskaini ditugun datuak interesgarri gerta daitezke, antzeko lanak beste autoreei buruz egin ondoren, gure olerkarien estrofagintza zernolakoa den zehatzago finka dezagun.

Zenbat aldiz entzun dudan hitz horien oihartzuna!

Iñaki Eizmendi, “Basarri”

Hurrengo urtean, 1984an, *Bertsolaritzari buruz* liburua argitaratu zuen Antonio Zavalak, bertan bilduz Basarrik bertsolaritzari buruz idatzitako hainbat artikulua; besteak beste, “Bertsolaritzari buruz” izeneko lau, *Zeruko Argian* 1963an plazaratuak, errima-legeaz (“puntu-legea” zioen berak) zuen iritzia argi azalduz.

Hitz gutxitan, errima-legeak hondatzen du gehien Hegoaldeko bertsolaria; errima derrigorrezkoa du bertsoak, “baña gaur arte gabiltzan bidetxigor melar ontatik eztaukagu ibiltzerik”. “Zabalegi ta estuegi ibili gabe, ba-daukagu erdiko bide bat”. Alegia, ez Iparraldeko zenbait kantutan bezain zabala (*sahetsean* eta *neguan* uztartuz), baina ezta Hegoaldekoa bezain estua ere (*gaztelua*, *tentelua*, *txorimalua*, *erregalua*, *alua*, *errezelua*, *lua* eta antzekoak erabiliz); baizik eta erdi bideko aukera hartuz, esaterako, Elizanburuk bezala (*gaztelua*, *sorlekua*, *hautatua*, *galdua*, *sortua*, *mundua* eta *zentzua* oinak onztat eta egokitzen joz) (Eizmendi, 1984: 21-31).

Horrela mintzo zen Basarri. Beste kontua da zer neurritan jokatu zuen horrela.

3. UZTAPIDEREN ERRIMA: OINAK ETA KLITXEAK

Testuinguru horretan –1982an– erabaki nuen Uztapideren errima aztertzea, kontuan izanik bai haren errima-legea (metrika) eta bai klitxeak. Zeharbidez banuen beste xede bat ere: gainerako bertsolarien errima aztertze-ko metodologia ontzea.

Uztapide aukeratzean, bertsolari gehienek ordezkaria hautatzen ari nintzen. Hura aztertuz, Hegoaldeko gaurko bertsolaritza aztertuko nuen; metrikari dagokionez, behintzat. Atzeman nitzakeen klitxeak, berriz, Uztapiderenak izango ziren, hasteko. Gero gerokoak.

“Uztapideren oin-errimen almazena berrosatzen”

Uztapideren bertsoen lagin bat behar-eta, *Sasoia joan da gero* jo nuen begiz (Uztapide, 1976). Bertso idatziak izanik ere, bat-batekoak dira formaz: errima berekoak. Egokiak, beraz, errima-legeak atzemateko. Bestalde, izan zezaketen abantailarik klitxeak ere atzemateko; hain zuzen, etorriaren oparotasunaren sasoia joanda, seguruenik nabarmenago azalduko ziren Uztapideren bertso-molderik ohikoenak. Seguruenik.

Pazientziaz hasi nintzen fitxak eskuz bete eta kartoizko kaxetan gordezten. Artean, urruneko kontuak ziren ordenagailuak-eta. Lan luzean sartu nintzen, eta presarik gabe. Horregatik, erdi bidean harrapatu ninduen Euskaltzaindiak, Manuel Lekuona Herri Literatura ikerketa-sariaren deialdia egin zuenean, 1988an. Hala ere, aurkeztu egin nintzen, ordu arte eginaren berri emanez, “Uztapideren oin-errimen almazena berrosatzen” izenburuaz. Saria irabazi nuen, eta lana argitaratzeko aukera.

Sarira aurkeztutako lanean, hiztegi konplexu baten zimenduak eta lehen emaitzak zeuden. Funtsean, oinen hiztegia zen: *Sasoia joan da gero*ko bertso-etako oinen hiztegia; ointzat hartuta, betiere, errima darama(te)n hitza(k). Baina oinak ez nituen ikusten banan-banan, baizik eta sailka eta multzoka, konstelazioak eta sistema konplexu bat osatuz. Azken batean, Uztapideren klitxeen bila nenbilen. Horren berri ematen saiatu nintzen, Felix Ibargutxi kazetariak eskatuta (Esnal, 1989).

“Errima Uztapideren bertsogintzan”

Handik bi urtera, *Eusker*a aldizkarian plazaratzeko prestatzean, bigarren lan bat ere erantsi nion saritutakoari, Uztapideren errima-legeak azalduz: “Errima Uztapideren bertsogintzan: ezaugarrietatik sistemara”, Biak batera, “Errima Uztapideren bertsogintzan” izenburuaz atera ziren *Eusker*an (Esnal, 1991).

Amaieran, hiru errima mota (eredu, Juan Mariren hitzetan) bereizten nituen Uztapideren praxian: 1) Ø amaiera duena, 2) bitartekoa eta 3) erro urrikoa eta amaiera luzekoak. Eta esaten nuen bakoitzeko zenbat erabili zituen *Sasoia joanda geron*: 129 lehenengo (% 15), 374 bigarrenengo (% 44) eta 349 hirugarrenengo (% 41).

Argi zegoen zertan ziren antzeko eta zertan ez Juan Marik Lizardiren errima-azterketan eta nik Uztapiderenean erabilitako sailkapenak. Berehala izango genuen aukera bi lanak bateratzeko-edo. Izan ere, Euskaltzaindiaren

Herri Literatura batzordekoa nintzen ordurako; eta batzordekide nituen, has-teko, ibilbidean maisu izandako Antonio Zavalá eta Juan Mari Lekuona.

Beste gertakari batek ere eragin handia izan zuen nire ibilbidean. Zarauzko Etxe Beltz bertso-eskolako irakasleek deitu zidaten berekin lan egitera.

“Bertsoa erabateko denean”: bertsolari-tipoak

Lan berria nuen bertso-eskolakoa. Eta, horrelakoetan ohi denez, erabaki-garriak izan ziren lehen urratsak. Haiak markatu zidaten ondorengo hamabost urteko lana, bertso-munduan murgilduta, bertsoan erakusten, errima-legeak arau eta klitxeak baliabide.

Hain zuzen, lehen esperientzia hura jasoz idatzi nuen, *Bertsolari* aldizka-riko, “Bertsoa erabateko denean” artikulua, bertsoen ikuspegi funtzionala azpimarratuz eta bertso-didaktikarako zenbait ondorio atereaz (Esnal, 1992):

Bertso-eskoletan ere oso eragilea izan daiteke ikuspegi funtzionala. Besteak beste, erraz ipintzen dituelako ikasleak bertso kantari; erraz eta bertsoaren ikuspegi osoagoz. [...]

Horrela sortu ditugu bertso-eskolarako bertsolari-tipoak, geure lanean asko laguntzen digutenak. Zer diren bertsolari-tipoak? Desiderio La-la-la, Xeru, Ahobero, Bexelas, Ea-Mea, Pantxika Baldintzas... eta antzeko bertsolariak.

Desiderio La-la-lak, esaterako, nahia edo desioa adierazten du bertsoan, eta beti subjuntibo-formaz eta -LA atzizkidunez bukatzen ditu bertsoak: *dezala, ditzala, daitezela, dadila, dezagula, ditzagula...* Xeruk ere antzeko bertsoak kantatzen ditu beti, baina honako hitzez amaituz: *daitezen, gaitezen, dadin, dezagun, ditzagun...*

Adibide bat ipini behar-eta, Nahikari Gabilondoren bertso bat hautatu nuen. Hamalau urte zituela kantatu zuen, Donostian, 1992ko eskolarteko finalean. Gaia: “udalekuan hamabost egun pasa eta azken eguna iritsi zaizu”. “Ara nun diran” doinuaz kantatuz, aipamen berezia irabazi zuen:

Udalekuan pasa ditugu
ederki hamabost egun.
Neska-mutilak ezagutuaz
egin ditut hainbat lagun.
Azken eguna iritsi da ta,
ea zer egin ber degun...
Beste hamabost egun luzetan
hemen itxaron dezagun.

Egun hartako oroitzapen asko ditut. Baina nekez ahaztuko zait zer esan zidan Iñaki Zulaika irakasleak, lehen oina *-egun-* entzun orduko: “badiagu bertsoa!”. Izan ere, berehala igarri genion Xeru edo Ea-Mea bertsolari-tipoen arabera osatuko zuela Nahikarik bertsoa. (Dena esanda, Xeruren bertsoa da, nahiz eta seigarren lerroa Ea-Mearena izan.)

Urtebete geroago plazaratu zen, *Jakin* aldizkarian, “Bat-bateko bertso-gintzaren didaktikaz” artikulua (Esnal, 1993a), Juan Mariren “Atalondo” artikulua atariko (Lekuona, 1993).

“Uztapideren bat-bateko bertso-gintzaren bihotzean”

Orduantxe iritsi zitzaidan *Egan* aldizkarikoen eskaria: ea idatziko nuen zerbait bertsolarien errimaz. Aukera polita zen Uztapideren errimaz egindakoa zehazteko.

Hiru artikulua aurreikusi nituen, “Uztapideren bat-bateko bertso-gintzaren bihotzean” izenburuaz, azken batean Uztapideren klitxeak azaltzeko, ikuspegi funtzionaletik. Soilik lehen biak egin nituen (Esnal, 1993b; 1994a), azalduz Uztapidek bertso-amaieretan erabilitako oinik eta hitzik usuenak eta lau ondorio atereaz.

Lehena: bat-bateko bertso-gintzan, hizketan bezala, oso etekin handia ateratzen zaie baliabide oinarritzoei. Adibidez, 34 hitz erabili zituen Uztapidek, behin eta berriz, *Sasoi*a joan da geroko 215 bertsoaren oinetan (%26tan), eta horietako 140 bertsoetan (%16tan) azken oin moduan.

Laugarren ondorioa: “kontua ez dela [bertso-eskoletan] gauza asko irakastea. Oso baliabide gutxirekin ere osa daitekeela bertsoa”. Eta, hori osatuz, “merezi duela oinen oinarritzko hiztegia egitea” (Esnal, 1994a: 33).

4. PUNTUA BERTSOLARITZAN

Orduan hartu nuen Juan Mariren eskutik euskal errima lantzeko gonbidapena, Euskaltzaindiaren XIII. biltzarrerako. Txosten bat prestatu beharko genuen, Herri Literatura batzordean. Gertu-gertuko bidaide izango nituen Antonio Zavala, Alfonso Irigoien, Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Aranalde... Ezin nuen aukera galdu.

Herri Literatura batzordean

Eremu handia da euskal errimarena, eta berehala ohartu ginen ezin izango genuela osorik aztertu. Datuz frogatu beharra zegoen, ordea, Zavalak 1973an esana: “Bertsolari ez diranak, diranak baño askoz lasaiagoak dira puntuetan. Bertso osoa irakurri gabe ere...”.

Horretarako, elkarrekin parekatuko nituen gaurko bertsolarien errima eta Orixek *Euskaldunak* poeman darabilena (Ormaetxea, 1991: 23-413). Berehala hasi ziren aldeak nabarmentzen. Adibidez, hona hemen zutabe banatan, bertsolarien bertsoak (artikulu honetan ja aipatuak) eta alboan Orixeren poemako ahapaldiak.

Uztapide eta Orixe (Ormaetxea, 1991: 48):

Zu jaio ziñanetik
gaurdaiño bitarte,
badira berrogeita ta
amaika bat urte;
bertsotan naiz ez izan
zuk ainbeste arte,
omenaldi onetan
artu nai nun parte,
zorianak biotzez,
Manuel Lasarte.

Itsus litzakela-ta,
gorrotoa gorde...
–Mikel ikusi leza
illuntzera bage–.
Oraiño neskatxari
dio begi erne;
biak dantzatzen ziran
orain-orain arte.

Urruzuno (Zavalaren hitzaldikoak) eta Orixe (Ormaetxea, 1991: 57):

Baztarturik an dauzka
goru ta ardatza,
gobernatzeko dio
esaten baratza:
atxurraren kirtena
omen dago latza,
etxea goratzeko
ai zer esperantza!

Uhitzin ere ba duk
artoa ta gatza...
Zeiñek jango ote dik gaur
lotsaren larratza?
Kristauek jate ezue
artatxarra ta aza...
âriek, zuen gisa,
illea aski latza.

Berriro ere, Urruzuno eta Orixe (Ormaetxea, 1991: 158):

Bizitu naiz eta ez
denbora gutxian,
umeekin lan asko
eginez etxian;
andria pasiatzen
ederki kotxian,
pena andirik gabe
bere biotzian.

Gazterik asia naiz
basoko lanean;
an irabazi-âla
gorde dut kutxean;
tarteko lanak ere
ein ditut etxean...
ez naiz oetan lotsa
iñoren aurrean.

Adibide horiek azaltzen dutena baino konplexuagoa da kasuistika, baina funtsean berriro ere errima hiru sailetan bana daitekeela ikusten nuen, Uztapideren errima aztertutakoan bezala. Orduan, datuek erakutsi zidaten bidea; orain, bertsolarien errima eta Orixerena alderatzeak.

Adibideetan, gainera, argi zegoen Zavalak salatutako aldea: noiz eta zer neurritan diren ezberdin bertsolari direnen eta ez direnen errimak. Nabarmen dago lehen eta hirugarren adibideetan: errima askoz lasaiago darabil Orixek, bertsolariek baino; bigarrenean, ordea, apenas dagoen alderik.

Bestalde, hirugarren adibideak Manuel Lekuonari ematen dio arrazoi, eta ez Antonio Pildaini. Hizkuntza atzizkiduna izango da euskara; baina bertsolariak, batetik, badaki atzizkirik gabe ere errima osatzen eta, bestetik, ez du atzizki soilez osatzen. Beraz, zertarako asmatu metrika berria: berez aberatsa dena pobretzeko? Errazagoa da, nonbait, metrika berria asmatzea, bertsolariena atzematea baino.

Hain zuzen, bertsolarien errima atzematea genuen eginkizun Herri Literatura batzordean. Urratua eta aurreratua genuen bidea. Pixkana, “Euskal errimaz” txostena onduz joan ginen, bost puntu garatuz: 1) errima, 2) bi errima mota, 3) errima bikoitza (erroa eta atzizki), 4) errima-arauak eta 5) estilistika. Bertsolaritza zabal hartu izanaren ondorio da bigarren puntua, bereiziz Hegoaldean nagusi den errima-moldea eta gainerakoena (Iparraldekoena, Orixerena eta abarrena). Bosgarren puntuan, berriz, nabaria zen Juan Mariren eskua; aliterazioa-eta aipatzen baitzituen. Dena den, lan luzeago baten lehen emaitza zen txostena. Gero gerokoak.

Txostenaren lehen aurkezpenak eta aldaketa

Lehen txosten hura Literatura Ikerketa batzordean aurkeztu nuen lehenik eta euskaltzain osoen aurrean gero. Ondoren, aldaketa nagusi bat egin nion, batik bat Jon Kortazarrek esanari kasu eginez: *errima* terminoa ez baina, *puntua* erabili. Bi arrazoigatik. Batetik, errima kultua eta bertsolariena bereizteko, hari *errima* deituz eta honi *puntua*. Bestetik, aliterazioa ere kontuan izateko, Juan Marik Lizardiren errimaz esana gogoan.

Leioako aurkezpena eta txostenaren azken bertsioa

Leioan, Euskaltzaindiaren XIII. biltzarrean, “Puntua bertsolaritzan” txostena aurkeztu nuen. Gogoan ditut amaitu nuenean Patxi Altunak eta Luis Mari Mujikak esanak; entzuleen artean baitziren biak.

Zakar samar mintzatu zen Patxi, esanez ez zuela onartzen han azaldutakoa arau bihurtzea. Asmo hura baztertua genuela azaldu zion Juan Mari Lekuonak. Ez genuela araurik ezarri nahi; errima deskribatzera mugatu ginea. Luis Mari Mujikak, berriz, aitortu zuen, harriduraz, ez zuela uste bertsolarien errima horren konplexua eta aberatsa zenik. Jakintsuena da zuzentzea.

Txostenari, dena den, beste ukitu txiki bat egin nion *Euskeran* plazaratzeko. Azkenean, nahiz eta Juan Marik hiruzpalautan esan ez egiteko, kendu egin nuen bosgarren atalean aliterazioaz idatzia. Nire izenean zihoan txostena, eta neure gain hartu nuen erabakiaren erantzukizuna. Juan Marik ez zidan inoiz ezer esan.

Horrela, aldaketa hori eginik, izenburuan *puntua* zioen txosten hartan, adiera bakarrera mugatua geratu zen termino horren esanahia: *errima* kulturaren herri-ordaina izatera, bertsolaritzari soilik eta berariaz aplikatuz.

5. ERRIMA BERTSOLARITZAN

Ia hamar urte geroago, 2003ko otsailean, euskal metrikari buruzko artikulua eskatu zidan Lourdes Otaegik Literatura-hiztegirako. Juan Marik esan ziola lan interesgarria egin genuela Leioarako, eta komeni zela hura ere biltzea.

Lehen bertsioa

Handik bi hilabetera bidali nion lehen bertsioa; eta harekin batera, gutun bat. Hona hemen gutunaren zenbait zati:

Gehienetan gertatu ohi denez, uste baino gehiago luzatu zaidan [egiteko hau]. Esango dinat zergatik.

Lehenengo eta behin, nire “Puntua bertsolaritzan” lana hartu eta aztertu behar izan dinat. Buelta asko eman zizkionat idatzi nuenetik, baina buruan soilik. Orain, ordea, paperera pasa beharra izan dinat; eta, gainera, asko laburbilduz. Eta zuzenketak eginez.

Izan ere, oinarritzako akats bat zaukan “Puntua bertsolaritzan” lanak: ahozko literatura guztiko errima aztertu nahi din. Egia dun bertsolaritzakoa aztertzen duela gehienbat, baina bertsolaritzaren muga gaindituz. Eta horrek gauzak nahastu egiten ditin. Horregatik, bertsolaritzako errimara mugatuko naun oraingoan. Eta gero gerokoak (noizbait etortzen badira).

Bigarren akats bat ere bazaukan lan horrek, eta izenak berak salatzen din: “puntua” horrek. Azken batean, bereizketa bati zegokion. Jon Kortazarri jarraiki, “puntua” hartu ninan herri-literaturako errima izendatzeko; eta “errima” utzi, literatura kultukoa izendatzeko. Gaur ez dinat hori egoki ikusten. Horregatik, “Errima bertsolaritzan” izenburua eman zionat oraingoari. (Izen kontu soila dela ematen din, baina sakonagoa den gaia.)

Artikuluaren mamiak, berriz, hau zioen:

Lau puntu landuz deskriba daiteke bertsogintzan erabilitako errima-sistema.

1. Deklinabidean bezala, bi zati bereiz ditzakegu bertsolarien erriman: erroa eta kasu-marka. Esaterako: aTE, aTE-A, aTE-Z, aTE-AN, aTE-TIK... Bertsolariaren errima ez da inoiz kasu-marka hutsez osatzen.

2. Erroa kontuan hartuta, hiru errima sail zehatz daitezke: 1) berezko “a” bokalez amaituak (esaterako: UDA, mUGA, ohitURA...), 2) “a” ez beste bokal batez amaituak eta 3) kontsonantez amaituak (esaterako: ON, gizON, egON, nON...).

3. Errimen kasu-markak ere hiru sail osatuz bana daitezke: 1) markarik gabeak (Ø), 2) -A, -AK markadunak eta 3) gainerakoak [-(E)AN, -(E)Z, -(r)IK, -(E)KO, -(E)TIK...].

4. Arauak edo legeak. Alegia, zer arauri jarraiki eta nolako luzerako errima osatzen duten errima-erroek eta kasu-markek elkartzean.

Berezko “a” bokalez amaituak:

Kasu-markarik gabe (edo -A markaz), gutxienez hiru hotsekoak (letrakoak) izaten dira errimak. Adibidez: ERA, aukERA, euskERA, gERA.

-AK marka edo bestelako kasu-marka (erabiliena -AN) hartzean, eutsi egin ohi diete erroko hiru hotsei (letrei). Adibidez: hEGAN, ERAN, aukERAN, primERAN, gERAN.

“A” ez beste bokal batez amaituak:

Kasu-markarik gabe, gutxienez bi hotsekoak (letrakoak) izaten dira errimak, nahiz eta beti joera izan hirugarren hotsa (letra) ere bereganatzekoa. Adibidez: haSI, iheSI, guZI...; hASI, ikASI, arAZI...; hoBE, atsekaBE, jaBE, gaBE...

-A eta -AK markak hartzean, beti eusten diete erroko bi hotsei (letrei), hirugarrena askeago utziz.

Bestelako markak hartzean ere, eutsi egingo diete erroko bi hotsei (letrei), eta errazago elkartuko dira (aukerarik izanez gero) antzeko erroa duten hitz hoskideekin. Adibidez: graZIKO, ikuSIKO, eTSIKO, uTZIKO, guTXIKO.

Kontsonantez amaituak:

Kasu markarik gabe, gutxienez bi hotsekoak (letrakoak) izaten dira errimak, nahiz eta beti joera izan hirugarren hotsa (letra) ere bereganatzekoa (“a” ez beste bokal batez amaituak baino joera handiagoa). Adibidez: eGUN, ezaGUN, euskalDUN, dezaGUN...

-A eta -AK markak hartzean, beti eusten diete erroko bi hotsei (letrei), hirugarrena askeagoz utziz. Adibidez: egUNAK, ilUNAK, hiztUNAK...

Bestelako markak hartzean, erraz galtzen dute erroko lehenengo hotsa (letra). Adibidez: aldameNEAN, gaiNEAN, joaNEAN, nintzaNEAN, izeNEAN.

Ohar honekin amaitzen nuen artikulua:

Horrela deskribatuta (bertso-adibiderik gabe-eta), konplexu eta nahasi samarra dirudi bertsolarien errimak, baina izatez ez da hala. Hamabi urteko neska-mutilek erraz bereganatzen dute, egoki irakasten bazaie.

Azken ohar bat ere eranstekotan egon nintzen, lotsagabe samar esanez oso euskal poeta gutxi izan dela gai errima-sistema hori atzemateko eta nahiago izan duela berria erabili, ezaguna ez zuena gutxietsiz eta aberatsagoa asmatzeko asmoz. Baina horrelako ohar bat lekuz kanpo omen dago hiztegi batean.

Bigarren bertsioa

Lourdes Otaegik, batetik, hiztegirako moldatuta itzuli zidan artikulua eta, bestetik, bere “Errima” artikuluan txertatuta. Egindako lan eskerga estimatuz, beste bi pasarte bidali nizkion: hasieran txertatzeko lehena eta amaieran eranstekoa bestea:

Bertsolaritzaren errimaren azterketa diakronikoak argituko luke zer bilakaera izan duen errimak tradizio bakoitzaren baitan eta nola joan den eboluzionatzen errima asonantetik errima (ia) kontsonantera, hau erabat nagusitzeraino. Hain zuzen, errima nagusi hori du gai sarrera honetako azterketa sinkroniko soilak, berori deskribatzea xede, kasuistikara asko jaitsi gabe eta bertso-adibiderik ipini gabe.

Horretaz gain, azpimarratzekoa da errima-sistema berezia dela, jardunaren jardunaz bertsolariek berek landua euskararen hizkuntz ezaugarrien plegura, eta alboko hizkuntzetako prezeptiben legeez nekez atzeman daitekeena.

Lehenengo pasartearen argi dago nola gaurko bertsolarien errima-sistema azaltzera mugatzen den lana, sistema horrek bere baitan hartzen duelarik tradizio zabal bat; bestela esanda, nola beste tradizio batzuk ere badauden, eta

horiek ere aztertzea mereziko lukeen. Bigarren pasartean, erraz atzeman daiteke lehen bertsioan idatzi gabe utzitako azken oharraren oihartzuna.

Hirugarren bertsioa

Hirugarren bertsioa *Literatura Terminoen Hiztegian* argitaratutakoa da, “Errima” sarreraren baitan (Esnal, 2008: 252-255). Adibiderik gabe-eta, trinkoegia da. Baina hiztegiaren moldeak agintzen du. Bestalde, pozgarri zait ikustea amaieran, nire inizialekin batera, Jean Haritschelharren eta Lourdes Otaegirenak ere, elkarlanaren lekuko.

6. EZ ADIORIK

Oraingoaz, honaino iritsi gara errimaren azterketan, Juan Mari Lekuonak emandako lekuko bikoitza eskuetan. Oraindik badago zer aztertua eta bateratua euskal metrikaren arloan, *Literatura Terminoen Hiztegia* argitara berriak erakusten duenez. Baina, nire ustez, (ia) erabatekotzat jo daiteke egungo bertsolaritzan erabiltzen den errima-legearen deskripzioa. Aurreratu samarra ikusten dut, bestalde, errima bertsolaritzan baliabide ere baden aldetik landua, nahiz eta oraindik badagoen zer aztertua eta batez ere, bertso-eskoletan, zer ustiatua. Izango ahal dugu ibilbide horretan jarraitzeko aukerarik, Juan Mari gogoan eta bihotzean.

BIBLIOGRAFIA

AMURIZA, Xabier (1977): *Menditik mundura*. S.l.: Amuriza.

— (1981a): *Bertsolaritza 1. Hitzaren kirol nazionala*. AEK.

— (1981b): *Bertsolaritza 2. Hiztegi errimatua*. AEK.

AZURMENDI, Joxe (1980): “Bertsolaritzaren estudiorako”. *Jakin* 14-15: 139-164.

EIZMENDI, Iñaki “Basarri” (1984): *Bertsolaritzari buruz*. Tolosa: Auspoa Liburutegia (Auspoa Liburutegia 178).

ESNAL, Pello (1980): “Txapelketa historiko bat”. *Zeruko Argia*: 1980. 01. 27: 33-34.

- (1989): “Bertsolaritzaren izkutuko tranpa”. *Zabalik, Diario Vasco*, 1989.01.18: 4-5.
- (1991): “Errima Uztapideren bertsogintzan”. *Euskeera* 36: 505-598.
- (1992): “Bertsoa erabatekoa denean”. *Bertsolari* 6: 24-37.
- (1993a): “Bat-bateko bertsogintzaren didaktikaz”. *Jakin* 75: 97-116.
- (1993b): “Uztapideren bat-bateko bertsogintzaren bihotzean: azken oin solte esanguratsuak”. *Egan XLV* (1993-1): 73-91.
- (1994a): “Uztapideren bat-bateko bertsogintzaren bihotzean: azken hitz-erro eta oinburu esanguratsuak”. *Egan XLVI* (1994-1): 5-33.
- (1994b): “Puntua bertsolaritzan”. *Euskeera* 39: 1.233-1.270.
- (1995): *Itzuliko naiz*. Oiartzun: Sendoa (Auspoa Liburutegia 229).
- (2008): “Errima bertsolaritzan”. Otaegi, Lourdes (koor.): *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 252-255.
- LEKUONA, Juan Mari (1979): *Ilargiaren eskolan*. Donostia: Erein.
- (1982): *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.
- (1983): “Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak”. *Jakin* 29: 53-102.
- (1993): “Atalondo”. *Jakin* 75: 11-16.
- LEKUONA, Manuel (1980): “Bertsoen metrika”. *Jakin* 14-15: 60-79.
- MUJIK, Luis Mari (1979): “Hitzaurrea”. Lekuona, Juan Mari: *Ilargiaren eskolan*. Donostia: Erein: 7-14.
- ORMAETXEA, Nikolas “Orixe” (1991): *Idazlan guztiak I: sorkuntzazkoak*. Gasteiz, Bilbo: Eusko Jaurlaritz, Etor.
- OTAEGI, Lourdes (koor.) (2008): *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- UZTAPIDE, Manuel (1976): *Sasoia joan da gero*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
- (2001): *Berriz plazara II*. Oiartzun: Sendoa (Auspoaren Sail Nagusia 12).
- XALBADOR (1976): *Odolaren mintzoa*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
- ZAVALA, Antonio (1996): *Auspoaren Auspoa I (Itzaldiak / Conferencias)*. Oiartzun: Sendoa (Auspoa Liburutegia 238).